



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko maiatzaren 10ean

50 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzkoa. Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, abereen osasunari buruzko Foru Legea aldatzeko. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak onetsitako irizpena (10. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako polizia kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legea aldatzeko. Aurkeztutako zuzenketak (11. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, foru parlamentari M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo andreak egina, heroina modu kontrolatuan emateko plan bat abian jartzeari buruzkoa (14. or.).
- Galdera, foru parlamentari José M.<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, Vinsako plantilla berregituratzeari buruzkoa (15. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, haragi-irinak errausteko Portland enpresarekin hitzarmenik ba al dagoen jakiteko (15. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, haragi-irinak errausteko Cementos Portland enpresarekin hitzarmen bat egitearen helburuei buruzkoa (16. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, haragi-irinak errausteko Cementos Portland enpresarekin hitzarmen bat egitearen egokitasunari buruzkoa (17. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, hondakin arriskutsuak errausteko behar diren azpiegiturei buruzkoa (18. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, hondakin arriskutsu bereziak errausteari eta Cementos Portland enpresako errauskailua instalatzeari buruzkoa (19. or.).

- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, hondakin arriskutsu bereziak jatorri dituzten irinak errausteak eragindako gastuen finantziarioari buruzkoa (20. or.).
- Galdera, foru parlamentari José M.<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, Erreserben Zentralaren egoerari buruzkoa (21. or.).
- Galdera, foru parlamentari José M.<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, turismo partzuergoentzako neurriak hartzeari buruzkoa (21. or.).
- Galdera, foru parlamentari José M.<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, Nafarroako ardoen sustapenari buruzkoa (22. or.).
- Galdera, foru parlamentari José M.<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, gainerako autonomia erkidegoetan Kohesio Funtzaren bidez biztanleko eginiko inbertsioei buruzkoa (22. or.).
- Galdera, foru parlamentari José M.<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, Renfek Nafarroako trenbide sarean eginikoei buruzkoa (23. or.).
- Galdera, foru parlamentari Jorge Mori Igoa jaunak egina, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruzkoa (24. or.).
- Galdera, foru parlamentari Jorge Mori Igoa jaunak egina, Industria, Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruzkoa (24. or.).
- Galdera, foru parlamentari Jorge Mori Igoa jaunak egina, Osasun Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruzkoa (25. or.).
- Galdera, foru parlamentari Jorge Mori Igoa jaunak egina, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruzkoa (25. or.).
- Galdera, foru parlamentari Jorge Mori Igoa jaunak egina, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruzkoa (26. or.).
- Galdera, foru parlamentari Jorge Mori Igoa jaunak egina, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruzkoa (26. or.).
- Galdera, foru parlamentari Jorge Mori Igoa jaunak egina, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruzkoa (27. or.).
- Galdera, foru parlamentari Jorge Mori Igoa jaunak egina, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruzkoa (27. or.).
- Galdera, foru parlamentari Jorge Mori Igoa jaunak egina, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak kontratatutako obra eta zerbitzuei buruzkoa (28. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzkoa**

### *LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzko Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori, 2001ko otsailaren 5eko 8. Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz Osoko Bilkuran zuzenketa hauek defendatzen ahalko dira:

– 8 zenbakiko zuzenketa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– 6 zenbakiko zuzenketak sarturiko artikulua berria ezabatzea eskatzen duen boto partikularra, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak aurkezturiko boto partikularrak, 6, 10 eta 16 artikuluei, artikulua berriari, azken xedapen berriari eta zioen azalpenari buruzkoak.

Aipatutako zuzenketak 2001eko apirilaren 19ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **IRIZPENA**

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako neurriei buruzkoa**

### **ZIOEN AZALPENA**

Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren

bidez onetsi zen. Bertan ezartzen da funtzio publikoaren arloko zenbait xedapen foru lege mailako arauen bidez onetsi behar direla.

2000 eta 2001. urteetan Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileek izanen dituzten lan baldintzei buruz administrazioak eta sindikatuek 2000ko apirilaren 4an sinatutako hitzarmena bi parte horien arteko negoziazio prozesuaren emaitza izan da.

Hitzarmen horretako alderdi batzuk arauetan bildu behar dira. Gero, hitzarmenaren 19. idatzatiaren arabera, administrazioak dagokion maila emanen dio arau horietako bakoitzari, behar bezala onetsi eta indarra hartzeko.

2000ko apirilaren 17an, Nafarroako Gobernuak berretsi zuen 2000ko apirilaren 4ko hitzarmen hura eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari agindu zion hura betearazteko beharrezko neurri eta ekimenak jar zitzala abian, hala legezkoak nola erregelamenduzkoak, kasuan-kasuan behar den organoak onetsi eta gero indarra har zezaten.

Hitzarmenean interes partikularreko borondatezko eszedentzia kasuetan jatorrizko lanpostua urte bat eta erdiz erreserbatzeko aukera biltzen da eta, bestalde, azaroaren 5eko 39/1999 Legean aurreikusitakoa aplikatzeko behar diren aldaketak egiten dira, langileek batera eraman ahal izan dituzten laneko eta familiako eginkizunak.

Horri gagozkiola, azaroaren 5eko 39/1999 Legeak funtzio publikoa erreformatzeko neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen 29.4 artikulua aldatu du, seme-alabak zaintzeko eszedentziaren gainekoa hain zuzen. Horren ondorioz, hura baliatzeko arauak zehaztu dira eta eszedentzia eskatzeko arrazoi bat gehiago sartu, hots, beren buruaz baliatzeko gauza ez diren ahaideei laguntzea.

Azkenik, behin eta berriz aipatzen ari garen hitzarmen horren 9. idatz-zatian, zenbait langile-talde C mailan sartzeari buruzko horretan, ezartzen da foruzainak, suhiltzaileak, ingurugirozainak, mendi zaindarioordeak eta puerikulturako laguntzaileak, 2001eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, C mailan sar daitezzen proposatzeko lege-arauen proiektuak izapidatuko direla. Aldaketa horrekin batera langileek egun jasotzen dituzten osagarriak ere moldatuko dira, aldaketa horrek, ahal bada, kostu ekonomikorik izan ez dezan. Hori guztia hitzarmena sinatu duten sindikatuekin negoziatuko da.

Era berean, Foruzaingoko sarjentuak, udaltzaingoetako sarjentuak, Nafarroko Foru Komunitateko suhiltzaileen kidegoko sarjentuak, zaindari nagusiak eta mendi zaindarioordeak B mailan sartuko dira.

Kontuan harturik Nafarroako polizia kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legearen arabera, foruzaintzako eta udaltzaintzako arauak berdinak direla, bidezko da C mailaren aldaketak bi langile-talde horietan izanzen duen eragina berdina izatea.

Bestalde, beharrezkoa da Langile Estatutuaren 7.a) eta 10. artikulua aldatzea, zerga, administrazio eta gizarte neurriei buruzko abenduaren 29ko 55/1999 Legeak Europar Batasuneko kide diren beste estatuetako herritarrek funtzio publikoaren zenbait sektoretan sartzeko bidea arautzen duen abenduaren 23ko 17/1993 Legean egin dituen aldaketetara egokitzeke.

Halaber, Langileen Estatutuaren 7.b) artikulua aldatuko da, langile-talde batzuetan sartzeko erregelamenduz ezarritako dagoen gehieneko adin-mugari lege mailako estaldura emateko.

Azkeneko xedapenetan zazpigarrenari bigarren lerrokada bat erantsi zaio minusbaliotasunak dituztenak funtzio publikoan sartzeko aukerak zabaltzeko asmoz, izan ere, bertan ezartzen da lanpostu hutsak aukeratzeko orduan lehentasuna izanzen dutela txanda irekiko izangaien aurretik.

Bestalde, zenbait langile-talde C mailan sartzearen ondorioz, lanpostu horiek betetzeko araubidean eta haien ordainsarien sisteman ere aldaketa batzuk egin behar dira. Horretarako, Langileen Estatutuaren hamabosgarren xedapen gehigarriari, non suhiltzaile sarjentuen lanpostuak betetzeko bidea arautzen baita, lerrokada bat erantsi zaio eta Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legearen 32, 34.3, 35, 37, 40, 46.4 eta 46.6 artikulua bes-tela idatziko dira.

Azkenik, egoki da langileriaren gaineko hainbat neurri biltzen dituen testu honetan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide berezia onesten duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 29.1.c) eta 30. artikuluen aldaketa ere sartzea. Aldaketa horri esker, aipatu erakunde autonomoari ahalmena ematen zaio lanaldi partzialeko langileak kontrata ditzan.

## I. KAPITULUA

Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testu bateginean sartu diren aldaketak.

**1. artikulua.** 7. artikulua honela geldituko da:

"7. artikulua.

Hautapen probetan onartua izateko, honako beharkizun hauek bete behar dira:

a) Espainiako nazionalitatea izatea.

Europar Batasuneko zuzenbideari jarraikiz, Europar Batasuneko kide diren beste estatuetako nazionalitatea dutenek ere sartzea izanzen dute lanpostu publiko guztietan, espainiarrei eskatzen zaizkien baldintza berberetan, salbu eta botere publikoan zuzenean edo zeharka parte hartzea dakarten lanpostuetan eta Estatuaren edo administrazio publikoen interesak defendatzea helburu duten eginkizunetan.

Aurreko lerrokadan ezarritakoa aplikatuko zaie, orobat, espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatu bateko nazionalitatea dutenen ezkontideei, zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude, hala nola euren oinordekoei eta ezkontidearen oinordekoei ere, zuzenbidearen arabera bananduta ez badago, baldin eta oinordekoak 21 urtetik beherakoak badira edo, zaharragoak izanda ere, haien bizkar bizi badira.

Orobat aplikatuko zaie, Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen zirkulazio librea onartzen duten herrialdeetako biztanleei.

Nafarroako administrazio publikoek, zeinek bere eskumenen arabera, zehaztu behar dute zein diren Europar Batasuneko beste estatuetako nazionalitatea dutenek betetzerik ez duten lanpostuak.

b) Adinez nagusia izatea eta erregelamenduz ezarritako adinetik beherakoa, horrelakorik finkatzen baldin bada.

c) Eskatutako titulua edukitzea edo, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean, hura eskuratzeko egoeran izatea.

d) Kasuan kasuko eginkizunetan aritzeko behar den gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

e) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo baztertua ez izatea eta administrazio publikoren bateko zerbitzutik berezia ez izatea."

**2. artikulua.** 10. artikulua honela geldituko da:

"10. artikulua.

Funtzionario izaera honako kasuetan galduko da:

a) Norberak propio eskatuta.

b) Espainiako edo Europar Batasuneko beste estatu bateko nazionalitatea galdutakoan, salbu eta, horrekin batera, kide den beste estatu batekoa hartzen baldin bada.

Estatutu honetako 7. artikuluko a) letran xedatutakoaren arabera, lanpostu publiko batean espainiarren baldintza berberetan sartzeari ahalbidetzen duten baldintzetako bat galdutakoan, salbu eta interesatuak a) letran adierazten diren beharrezkoen arteko bat betetzen baldin badu.

c) Diziiplina espediente baten bidez edo epai judizial irmo baten bidez zerbitzutik berezitatekoan.

d) Estatutu honetako 26.3 eta 27.7 artikuluetan zehaztutako kasuetan".

**3. artikulua.** 26. artikuluko 1. idatz-zatiko c) letra honela geldituko da:

"c) Funtzionarioaren interes partikularrengatik. Jatorrizko lanpostua hemezortzi hilabetez gordeko da, zerbitzuaren beharrek horretarako bidea ematen badute eta interesatuak egiaztatzen baldin badu eskaera egin aurreko bi urteetan, gutxienez, jardunean edo horren antzeko lan egoera batean aritu dela".

**4. artikulua.** 27. artikulua honela geldituko da:

"27. artikulua.

1. Funtzionarioak eskatuta, eszedentzia berezia onartu ahalko da, kasuan-kasuan ezartzen den eperako, honelako kausa hauek egiaztatuz gero:

a) Hiru urterako, gehienez, seme-alaba bakoitza zaintzeko, naturalak zein adoptatuak, hala nola adoptatu aurreko harrera-fasean daudenak eta babespean betiko hartzen direnak ere. Hiru urte horiek haurra jaiotzen denetik edo, bestela, epaileen edo administrazioaren ebazpenaren egunetik aurrera kontatuko dira.

b) Hiru urterako, gehienez, funtzionarioaren kargura dagoen odoleko edo ezkontza bidezko ahaideren bat zaintzeko, bigarren gradu artekoa —horiek barne—, baldin eta adinagatik edo istripu edo eritasun baten ondorioz bere kasa bizitzeko gauza ez bada eta lansari erregularrik jasotzen ez badu.

2. Eszedentzia berezi bakar hartu ahal izanen da hura eragiten duen subjektu bakoitzeko. Beste subjektu eragile batek beste eszedentzia berezi baterako bide ematen badu, hura hastearekin batera ordura arte disfrutatzen ari zen eszedentzia amaituko da.

3. Eszedentzia mota hau funtzionarioen banakako eskubidea da. Subjektu eragile berak bi funtzionarioentzako eskubidea ahalbidetzen baldin badu, kasuan kasuko administrazio publikoak eskubidea izanen du bi funtzionarioek aldi berean erabili behar duten eszedentzialdia mugatzeko, zerbitzuaren beharrek direla-kausa arrazoi justifikaturik baldin badago.

4. Kasu guztietan, eszedentzia berezia emateko, funtzionarioak aitortu beharko du bitartean ez duela beste jardura profesionalik edo lanik egin behar.

5. Eszedentzia berezian dauden funtzionarioek jatorrizko lanpostua gordetzeko eskubidea izanen dute, baina ez dute eskubide ekonomikorik sortuko. Dena den, antzinatearen ondorioetarako, egoera horretan ematen duten aldi osoa aintzat hartuko zaie. Eskubide pasiboen ondorioetarako, haien babes sozialeko arautegian ezarritakoari jarraikiko zaio.

6. Eszedentzia berezia duten funtzionarioek eszedentzi aldia bukatu eta hurrengo egunean hasi beharko dute lanean jatorrizko lanpostuan.

7. Eszedentzia bereziko aldia bukatu gabe ere, interesatuek noiznahi eskatu ahalko dute jardunean hastea, baina kausa berean oinarritutako beste eszedentziarik ezin izanen dute eskatu. Lanean berriz hastea erabakitakoan, aurreko artikuluko 3. idatz-zatian ezarritakoari jarraikiko zaio".

**5. artikulua.** Zazpigarren xedapen gehigarriari bigarren lerrokada bat erantsi zaio, honako hau dioena:

"Aurreko lerrokadan ezarritako ezintasun-maila izanda, administrazioan sartzeko deialdi bateko lanpostua lortzen duten izangaiak, lanpostu hutsak aukeratzeko orduan, txanda irekiko izangaien aurretik egonen dira, zein txandatik sartu diren kontuan hartu gabe."

**6. artikulua.** Hamabosgarren xedapen gehigarriak testu hau izanen du:

“1. Nafarroako administrazio publikoen menpeko su-itzaltze eta salbamendu zerbitzuetako funtzionarioei dagozkien gaiak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileei buruzko xedapen orokorrek arautuko dituzte, salbu eta hurrengo idatz-zatietan xedatutakoan.

2. Su-itzaltze eta salbamendu zerbitzuetan, betiere, lanpostu hauek izanen dira:

- Suhiltzaile-ofiziala: A maila.
- Suhiltzaile-ofizialordea: B maila.
- Suhiltzaile sarjentua: B maila.
- Suhiltzaile kabua: C maila.
- Suhiltzailea: C maila.

3. Suhiltzaile lanpostuak funtzio publikoan sartzeko oposizio bidez beteko dira. Hautaketa proben artean, betiere, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak emanen duen prestakuntza ikastaro bat egonen da. Ikastaroak dirauen bitartean izangaiak praktiketako funtzionarioak izanen dira.

4. Kabuaren lanpostu hutsak goragoko kategoriara igotzeko lehiaketa bidez beteko dira, Nafarroako edozein Administrazio Publikoaren suhiltzaileen artean. Lehiaketan, betiere, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak emanen duen gaikuntza ikastaro bat egonen da. Oposizio-lehiaketa horretan parte hartzeko baldintza izanen da, suhiltzaile lanpostuan hiru urteko zerbitzuak egiaz eman direla frogatzea.

5. Sarjentuaren lanpostu hutsak oposizio-lehiaketa bidez beteko dira. Lehiaketan, betiere, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak emanen duen gaikuntza ikastaro bat egonen da. Igo ahal izanen dute suhiltzaile kabuek baldin eta frogatzen badute kabu lanpostuan hiru urteko zerbitzuak egiaz eman dituztela eta erregelamenduz ezarritako titulua, unibertsitatekoa, erdi edo goi mailakoa, badute; eta suhiltzaile kabuek baldin eta frogatzen badute, lege hau indarrean sartzera koan, Nafarroako edozein Administrazio Publikoan bost urteko zerbitzuak egiaz eman dituztela.

6. Suhiltzaile-ofizialordearen lanpostu hutsak goragoko kategoriara igotzeko lehiaketa bidez beteko dira, Nafarroako edozein Administrazio Publikoaren suhiltzaile sarjentoen artean. Lehiaketan, betiere, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak emanen duen gaikuntza ikastaro bat egonen da. Oposizio-lehiaketa horretan parte hartzeko baldintza izanen da, suhiltzaile lanpos-

tuan hiru urteko zerbitzuak egiaz eman direla frogatzea.

7. Suhiltzaile-ofizialaren lanpostu hutsak oposizio-lehiaketa bidez beteko dira. Lehiaketan, betiere, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak emanen duen gaikuntza ikastaro bat egonen da. Nafarroako edozein administrazio publikotako suhiltzaile-ofizialordeek parte hartu ahal dute, baldin eta frogatzen badute ofizialorde lanpostuan bost urteko zerbitzuak egiaz eman dituztela eta erregelamenduz ezarritako titulua, unibertsitateko goi mailakoa, badute.

8. Aurreko idatz-zatietan aipatzen diren sarrera eta igoera prozedurak ebatzi aitzin, dauden lanpostu hutsak Nafarroako edozein administrazio publikotan lanpostu berdina betetzen dituzten funtzionarioen arteko lekualdatze lehiaketara aterako dira.

9. Suhiltzaile edo suhiltzaile kabu lanpostuetan aritzen diren funtzionarioek, 55 urte betetakoan destino hauetako bat aukeratu ahal izanen dute:

a) Lanpostu berean gelditzea 60 urte bete arte. Horretarako, osasun azterketa eta gaitasun fisiko probak gainditu beharko dira urtero, lanpostuan aritzeko behar diren baldintzak dituztela frogatzeko.

b) Dauden zerbitzuan zerbitzu osagarrietako lanpostu batetara pasatzea. Lan horietan aritzen direnek ez dute zuzenean esku hartzen ezbeharreran eta laguntzako eginkizunak betetzen dituzte.

Eritasuna edo istripua dela-eta, lanpostuaren eginkizunak betetzeko ezindurik dauden su-itzaltze zerbitzuko funtzionarioek ere zerbitzu osagarrietako lanpostu batetara aritzera pasatu ahal dira, eta horrek operazio-taldean lanpostu hutsa sortuko du.”

## II. KAPITULUA

Nafarroako polizia kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legean egin diren aldaketak

**7. artikulua.** 32. artikulua honela geldituko da:

“32. artikulua.

Nafarroako polizia kidegoetan sartzeko, honako titulu hauek eskatuko dira, gutxienez:

a) Polizia, kabu eta sarjentu lanpostuetarako, batxilergoko edo goi mailako teknikariaren titulua, edo horien baliokidea.

b) Ofizial karguetarako, unibertsitateko goi mailako titulua edo horren baliokidea izatea, edo bestela, Estatuko segurtasun kidego eta indarre-

tako edo indar armatuetako buru, ofizial edo agintaria izatea".

**8. artikulua.** 34. artikuluko 3. idatz-zatia honela geldituko da.

"3. Aurreko idatz-zatian aipatu oposizio-lehiaketan parte hartzeko, egiaztatu beharko da aurreaurreko beheargoko lanpostuan bi urteko antzintasuna duela, gutxienez".

**9. artikulua.** 35. artikulua honela geldituko da:

"35. artikulua.

1. Foruzain-ofizialen lanpostu hutsak honela beteko dira:

a) Ehuneko berrogeita hamar barneko igoera txandan, Foruzaingoko kideen arteko oposizio-lehiaketa bidez.

b) Beste ehuneko berrogeita hamar Estatu segurtasuneko kidego eta indarretako edo indar armatuetako buru, ofizial edo agintarien arteko oposizio-lehiaketa bidez.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritako ehuneko aplikatzeko, sortzen diren bi lanpostu hutsetatik lehenengoa barne igoerarako izanen da eta bigarrena aurreko idatz-zatiko b) letran ezarritako txandarako.

3. Artikulu honetako 1. idatz-zatiko a) letran aipatu oposizio-lehiaketan parte hartu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Aurre-aurreko lanpostuan, gutxienez, bi urteko antzintasuna izatea.

b) Lanpostu horretarako eskaturiko titulu akademikoa izatea.

4. Udaltzaingoko Kidegoetako Ofizialen lanpostu hutsak arestiko idatz-zatian zehazturiko baldintzak betetzen dituzten udaltzaingoen artean beteko dira.

5. Arestiko 1. eta 4. idatz-zatietan ezarritakoari jarraikiz betetzen ez diren ofizial lanpostuak txanda irekian eskainiko dira, 32. artikuluko b) idatz-zatiko baldintzak betetzen dituzten artean bete daitezela".

**10. artikulua.** 37. artikulua honela geldituko da:

"37. artikulua.

Nafarroako Administrazio Publikoen menpeko Polizia Kidegoetako funtzionarioak maila hauetan sailkatuko dira:

a) Ofizialak: A maila.

b) Sarjentuak: B maila.

c) Poliziak eta kabuak: C maila".

**11. artikulua.** 40. artikulua honela geldituko da:

"40. artikulua.

Lanpostu hutsak sortzen direnean, mailaz gora egiteko modua oposizio-lehiaketa izanen da, kasuan kasuko kidegoan maila apalagoetan dauden funtzionarioen artean, 35. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritakoari jarraikiz".

**12. artikulua.** 46. artikuluko 4. idatz-zatia honela geldituko da:

"4. Lanpostuaren osagarria zailtasun edo erantzukizun berezia duten lanpostuei emanen zaie, hala nola bizkartzaintza zerbitzuko, prestakuntza tekniko berezia behar dutenei eta unitate organikoetako buruei. Kasuan kasuko mailaren oinarritzko soldataren % 85ekoa izanen da, gehienez".

**13. artikulua.** 46. artikuluko 6. idatz-zatia honela geldituko da.

"6. Bateriaezintasunaren osagarria, eginkizunak ikusita, haren beharra duten lanpostuei esleituko zaie. Kasuan kasuko mailaren oinarritzko soldataren % 25ekoa izanen da, gehienez".

### III. KAPITULUA

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide berezia ezartzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legean egindako aldaketak.

**14. artikulua.** 29. artikuluko 1. idatz-zatiko c) letra honela geldituko da:

"c) Behar bezala justifikatzen diren beste langile-premia batzuei erantzutea, lanaldi osoak zein partzialekoak, betiere behar horiei erantzuteko langile finkorik ez dagoela egiaztatzen baldin bada".

**15. artikulua.** 30. artikulua honela geldituko da:

"30. artikulua.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartzeko langileek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko funtzionario-izaera izanen dute, salbu eta lanaldi partzialeko lan-kontratudun finkoek. Dena den, sartzeko langile guztiei Gizarte Segurantzaren araubide orokorra aplikatuko zaie.

#### IV. KAPITULUA

Langile-talde batzuk B eta C mailetan sartzea.

**16. artikulua.** 1. Foru lege honek indarra hartzeko unean, kabo edo polizia lanpostuetan ari diren Foruzaingoko edo udaltzaingoetako kideak Nafarroako polizia kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legearen 37. artikuluan ezarritako sailkapenaren C mailan sartuko dira.

2. Foru lege honek indarra hartzeko unean, sarjentu lanpostuetan ari diren Foruzaingoko edo Udaltzaingoetako kideak Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legearen 37. artikuluan ezarritako sailkapenaren B mailan sartuko dira.

3. Toki entitateetako funtzionarioak, foru lege honek indarra hartzean ondotik ageri diren baldintzak betetzen dituztenak, C mailan sartuko dira, 'albiente' izenarekin:

a) Lanpostu hauetako bat betetzen egotea: zaindaria, zainzailea, agentea, albientea, gauzaina edo baliokidea, D mailakoa.

b) Delako lanpostua Nafarroako polizia kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legeak indarra hartu ondotik eskuratu baldin bada, foru lege horren 12.2 artikulua aipatzen duen prestakuntza ikastaroa gainditu izana.

c) Indarra hartu aurretik eskuratu baldin bada, berriz, udaltzaingoaren eginkizunak agente armadun gisa egiaz bete izana ordura arte.

**17. artikulua.** Foru lege honek indarra hartzeko unean, suhiltzaile, zerbitzu osagarrietako suhiltzaile, suhiltzaile gidari, zerbitzu osagarrietako suhiltzaile gidari, suhiltzaile kabu edo zerbitzu osagarrietako suhiltzaile kabu lanpostuetan ari diren Nafarroako administrazio publikoen eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuan ezarritako sailkapenaren C mailan sartuko dira.

**18. artikulua.** Foru lege honek indarra hartzeko unean, ingurugirozain, mendi zaindario, puerikulturako laguntzaile edo puerikultura-klinikako laguntzaile lanpostuetan ari diren Nafarroako administrazio publikoen eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileak Nafarroako Administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuan ezarritako sailkapenaren C mailan sartuko dira.

**ARTIKULU BERRIA.** Foru lege honek indarra hartzeko unean, Foruzaingoko sarjentu, udaltzaingoetako sarjentu, Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuko sarjentu eta Ingurumen Departamentuko zaindari nagusi eta mendi zaindario lanpostue-

tan ari diren Nafarroako Administrazio Publikoen eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileak Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuan ezarritako sailkapenaren B mailan sartuko dira".

**19. artikulua.** Foru lege honetako IV. kapituluaren arautu diren sailkatzeen ondorio ekonomiko eta administratiboek 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen dute indarra. Aldaketarekin batera, lanpostu horien egungo lansari osagarri guztiak moldatuko dira, izan ere, sailkatze berria izan arren, langile horiek gaur egun jasotzen dituzten guztirako lansarietan (oinarrizkoak zein osagarriak) ez da igoerarik egongo, graduari dagozkion ordainsarietan izan ezik.

#### Xedapen gehigarriak

**Lehena.** Foru lege honen bidez sailkapen berria duten Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko, foru lege honek indarra hartu ondoren onesten diren deialdietara aurkeztu diren izangaiei, arau indardunetan ezarritako baldintzez gainera, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuko 15. artikuluko 2. idatz-zatian C mailakoentzat ezarritako titulua edukitzea ere eskatuko zaie.

**Bigarrena.** Puerikulturako laguntzaile eta puerikultura-klinikako laguntzaile lanpostuetan ari direnak C mailara igarotzearekin batera, lanpostu horien izena ere aldatuko da. Haurtzaindegi bati atxikita dauden lanpostuei "haurren hezitzaile" izena emanen zaie eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen beste zentro edo zerbitzu bati atxikitakoei "hezitzaile".

#### Xedapen iragankorrak

**Lehena.** Interes partikularreko borondatezko eszedentzietan lanpostuaren erreserbaldia hemezortzi hilabetera zabaltzeko foru agindu honetan ezarritako bidea foru lege honek indarra hartu aurretik deklaraturako kasu guztiei aplikatuko zaie, betiere egun hartan orain arte hitzartutako erreserbaldia —urtebekoa— amaitua ez badago.

**Bigarrena.** Interes partikularreko borondatezko eszedentzia 2000. urtean onartua duten langileek, eman zitzaizen egunean eszedentzia berezia baliatzeko foru lege honetan ezarri diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen baldin badute, eszedentzia-mota aldatzea eskatu ahalko dute, hasierako deklarazioa egin zenetik aurrerako ondorioekin.



**Hirugarrena.** Foru lege honen arabera sailkapen berria duten lanpostuak betetzeko deialdia foru lege honek indarra hartu aurretik argitaratua baldin bada, deialdiari aurreko arautegia aplikatuko zaio, baina izendatu eta kargua hartzen duten izangaiak C mailan sartuko dira, kasuan kasuko administrazio publikoaren ekinbidez.

#### **Xedapen indargabetzailea**

**Bakarra.** Indarrrik gabe utzi dira foru lege honetan xedatutakoaren aurka dauden maila bereko edo apalagoko xedapenak.

#### **Azken xedapenak**

**Lehena.** Nafarroako Gobernuari ahalmena eman zaio foru lege hau zuzen betearazi eta garatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

**BERRIA.** Hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak Nafarroako polizia kidegoei buruzko foru legearen testu bategin bat prestatu eta onetsiko du legegintzako foru dekretu bidez.

**Bigarrena.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, salbu eta 19. artikuluan xedatutakoak.

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## Foru Lege proposamena, abereen osasunari buruzko Foru Legea aldatzeko

### NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA ETA MENDI BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak abereen osasunari buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 135.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proposamen hori, 2000ko abenduaren 12ko 109. Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz Osoko Bilkuran zuzenketa hauek defendatzen ahalko dira:

– 1 eta 2 zenbakiko zuzenketak, Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak aurkeztuak.

Aipatutako zuzenketak 2001eko apirilaren 19ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### IRIZPENA

#### Abereen osasunari buruzko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena

#### ZIOEN AZALPENA

Abereen osasunari buruzko Foru Legearen eztabaidan agerian geratu zen Biltzarreko gehien-goia era guztietako animaliak –hausnarkariak izan ala ez– elikatzeke pentsuak egiteko animalia hilen erabilera debekatzearen alde dagoela.

Iritzi publikoa asaldatuta dago Estatuko zenbait erkidegotan “behien entzefalopatia espongi-formea” (BEE) izeneko gaitza agertu delako.

Presakoa da behar diren aurreneurriak eta segurtasun neurri guztiak jartzea, maila guztietan, gaixotasun hori zabal ez dadin, eta azpimarratzekoa da hura deuseztatu nahi badugu, gaixotasuna

agertzeko arrazoiei egin behar diegula aurre. Horretarako, kutsadura-arrisku guztiak deuseztatu behar dira, eta animaliez eginiko animalientzako (eta konpainiako animalientzako) irinak debekatu behar dira, bai eta hirugarren herrialdeetara esporta daitezen debekatu ere.

Beharrezkoa da hondar arriskutsuak kentzea elikagaien kateatik Europar Batasuneko herrialde guztietan.

Premiazkoa da behien entzefalopatia espongi-formeari buruzko ikerketak areagotzea, inolako arrastorik bazter utzi gabe, eta kutsadura egiaztatuko duen test fidagarri bat prestatu beharra dago.

Pentsuen industriak gardentasun gehiagoz jokatu behar du; horretarako, osagaiei eta produktuen jatorriari buruzko xehetasunak emanen dituzten etiketen beharra gero eta nabarmenagoa da.

**1. artikulua.** Abereen osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legeko 26. artikuluari bi idatz-zati gehitu zaizkio. Hona testua:

“2. Inoiz ere ezin izanen da animalien gorpurik erabili edozein motatako azpiproduktuak prestatzeko ez eta beste animalia batzuei jaten emateko, konpainiako animaliei barne; guztiz debekatu dago haiek erabili eta aprobetxatzea, erregai gisa ez bada.”

“IDATZ-ZATI BERRIA. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak antolatu eta finantzatu dituzten ustategietan teknikariek eskatutako osasun hustuketak direla-eta, bai garrantzi bereziko gaixotasunen ondorioz, hildako animaliak biltzeko planak.

**2. artikulua.** Abereen osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legeko 56. artikuluko 7. idatz-zatia aldatzen da. Hona testu berria:

“7. Hauei probetxua ateratzeko edozein triki-mailu:

– Animalia hiletatik lortutako haragia edo produktua.

– Nahitaez sakrifikatu beharreko abereetatik lortutako kanal edo errai dekomisatuak.”

**3. artikulua.** Abereen osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legeko 56. artikuluko 8. idatz-zatia aldatzen da. Hona testu berria:

“8. Abereen gorpuak, erraiak, hondakinak edo dekomisua tratatu eta aprobetxatzeko jarduerak.”

**4. artikulua.** Abereen osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legeari xedapen gehigarri berri bat eransten zaio. Hona haren testua:

“Laugarrena. Animalien pentsuak kontrolatu eta suntsitzea.

1. Foru lege honek indarra hartu eta hilabeteko epean, osagaien artean beste animalia batzuen

elementuak dauzkaten animalientzako pentsu konposatu guztiak suntsitu beharko dira.

2. Nekazaritza Departamentuak, foru lege honek indarra hartu eta hilabeteko epean, erregelamendu bidez garatuko du beste animalia batzuk elikatzeke pentsuen fabrikaziorako animaliarik erabil ez dadin kontrolatzeko prozedura.

### **Azken xedapenak**

**Lehena.** Esku ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau egoki garatu eta betetzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

**Bigarrena.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamuneari hartuko du indarra.

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako polizia kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legea aldatzeko**

### **AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betetz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Nafarroako polizia kidegoei buruzko otsailaren 13ko 1/1987 Foru Legea aldatzeko aurkezturiko Foru Lege proposamenari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proposamen hori 2001eko martxoaren 22ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **1. ZUZENKETA**

#### **IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

6. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa

6. artikuluari 3. idatz-zatia gehitzea, eduki honekin:

“3. Erregelamenduz ezarriko dira aurreko idatz-zatian aipatzen diren lanpostuetako bakoitzari dagozkion eginkizunak.”

Zioak: Gobernuak konpromisoa hartzea foru legea erregelamendu bidez garatzean lanpostu bakoitzaren eginkizunak arau daitezzen, gaurdaino izan den egoera saihesteko, inolako arautzerik ez izateak kalteak ekartzen baitizkio zerbitzuaren funtzionamendu egokiari.

### **2. ZUZENKETA**

#### **IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

34. artikulua aldatzeko zuzenketa

34. artikuluko 1. idatz-zatiaren bigarren lerrokada aldatzea, honako testua izateko:

“Sartzeko prozeduran honako proba baztertzaille hauek eginen dira:”

Zioak: Segurtasun juridikoa dela eta; “gutxienez” kenduta, argi gelditzen da probak legean aurreikusirikoak direla, ez besterik.

**3. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

34. artikulua aldatzeko zuzenketa.

34. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzea, honako testua izateko:

“2. Kabo, sarjentu, inspektoreorde eta inspektorearen lanpostu hutsak barne igoeraren bidez beteko dira polizia kidegoan bertan, beheragokotik lanpostu zuzenki eta oposizio-lehiaketa baten bidez. Oposizio-lehiaketa horretan jakintza probak, izangaiak lanpostuaren ezaugarri profesionalerako egokiak diren neurtzeko proba psikoteknikoak eta Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak lanpostura gaitzeko emanen duen ikastaro bat gainditu beharko dira. Oposizio-lehiaketa horretan parte hartzeko, lanpostu zuzenki beheragokoan bi urteko antzinatasuna, gutxienez, izatea eskatuko da.”

Zioak: Igotzeko prozeduraren baldintzen zehaztapena kidegoetan sartzeko prozeduraren kasuan egiten den bezala osatzea da helburua. Prozedura horiek desberdinak dira igoerarako horretan ez delako eskatzen egoera fisikoaren probarik ez eta osasun probarik ere, izangaiak Nafarroako Polizia Kidegoetako jarduneko funtzionarioak direnez baldintza horiek betetzen direla koan lehendik ere, eta izangaiak ez badituzte betetzen eskatzen diren baldintza fisikoak, ondorioa ez da igotzea galaraztea, lanbiderako ezgai, erabat edo hein batean, direla deklaraztea baizik.

**4. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

39. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

39. artikuluari 2. idatz-zatia gehitzea, testu honekin:

“2. Nafarroako polizia kidegoetako kideek barne igoerako prozesuetan Nafarroako Administrazio Publikoaren langileendako txanda murriztuan parte hartu ahal izanen dute, egiazko zerbitzuan 8 urte betetzen dituztenetik aitzina.”

Zioak: Polizia kidegoetako funtzionarioak beren kidegoetan bertan ez eze Nafarroako gainerako administrazio publikoetan ere, mugikortasun horizontalaren bitartez, mailaz igo daitezen ahalbidetzea. Gutxienerako muga bat ezarri da, zer-

bitzuan, mailaz igo aurretik, zortzi urte emanik izatea kasuan kasuko polizia kidegoan, gizarteak jaso dezan poliziako funtzionarioek jasotzen duten berariazko prestakuntzaren ordaina.

**5. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

42. artikulua aldatzeko artikulua.

42. artikulua 2. idatz-zatia aldatzea, “gutxienez” hitza kenduz.

Zioak: Segurtasun juridikoa dela eta, betiere baremoetan errendimenduaren balorazioak duen garrantzia jakiteko, eta administrazioaren zuzentzaraketarako mugak jartzeko.

**6. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

46. artikulua aldatzeko.

46. artikulua 3. idatz-zatia aldatzea, “ehuneko 30” dioen tokian “ehuneko 50” idazteko.

Zioak: Gaur egun Nafarroako polizia kidegoetako kide batzuek jasotzen dituzten ordainsariak ordainketa kontzeptu berrietara egokitzea, arazok gerta daitezkeelako ehuneko 30eko mugarekin.

**7. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

13/1987 Foru Legearen 59. artikuluari 2. idatz-zatia gehitzea. Honako testua izanen du:

2. Erregelamenduz ezarriko da zein kasutan igaroko diren langileak bigarren jarduerarako gorderiko lanpostuak betetzera, lan mota bakoitzaren gehieneko adinera ailegatzeagatik edo ezgaitasun partziala dela-eta. Plantilla organikoetan adierazi beharko dira bigarren jarduerako multzoan sartu ahal izanen diren lanpostuak, eskatzen duten ahalegin fisiko, arrisku edo zailtasun txikiagoan oinarriturik.

Zioak: Bigarren jarduerako egoera sortzeko bide ematea. Egoera hori aurreikusirik dago beste polizia kidego batzuetan, eta langileen plantillak egokiro antolatzeko tresna da, zenbait funtzionariok beren eginkizunak eraginkortasunez betetzeko gaitasuna galtzen baitute.

## 8. ZUZENKETA

### IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Lehen xedapen iragankorrari gehiketa egiteko zuzenketa.

Lehen xedapen iragankorrari bigarren lerroka da bat gehitzea, testu honekin:

“Saiklatze berriak 2001eko urtarrilaren 1etik aitzina izanen ditu ondorioak.”

Zioak: Sindikatuek eta foru administrazioak arlo honetan izenpeturiko akordioak betetzea ahalbidetzea.

## 9. ZUZENKETA

### IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“Bigarrena. Bigarrena. Nafarroako polizia kidegoetako kideak, foru lege honek indarra hartzean sarjentuaren lanpostuetan ari direnak, B mailan sartuko dira.”

Zioak: Lanpostuetan aurreikusiriko berrantolaketa foru lege honek indarra hartzen duen unetik aurrera gauzatu ahal izatea.

## 10. ZUZENKETA

### IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

Xedapen gehigarri berri bat gehitzea, testu honekin:

“Bigarrena. Sei hilabeteko epean Nafarroako Gobernuak foru lege honen xedapenak garatu eta aplikatzeko behar diren erregelamenduzko arauak emanen ditu, eta gai hauei buruzko berariazkoak:

– Sartu eta mailaz igotzeko prozedurak.

– Lanpostuak betetzea eta destinoak.

– Prestakuntza etengabea eta espezializazioa, eta prestakuntza jardueretan parte hartzeko baldintzak.

– Nafarroako polizia kidegoetako lan arrisku berariazkoen prebentzioa, haien ezaugarri berezien legedi indarduna egokituz.

Zioak: Nafarroako Gobernuak behar diren arauak egin gabe ez egotea eta aspaldixko honetan 13/1987 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapen osatugabeak izan dituen ondorio kaltegarriak saihestea. Lan arriskuen prebentzioari dagokionez, kontuan hartu beharra dago legedi indardunak ez dituela aintzat hartzen, besteak beste, Nafarroako polizia kidegoetako kideak eta beraz, beharrezkoa dutela araudi berariazkoa.

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Heroina modu kontrolatuan emateko plan bat abian jartzeari buruzko galdera***FORU PARLAMENTARI M<sup>a</sup> ISABEL ARBONIÉS BERMEJO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, foru parlamentari M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo andreak heroina modu kontrolatuan emateko plan bat abian jartzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko maiatzaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**GALDERAREN EDUKIA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko Hezkuntza eta Kulturarako eledun M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo andreak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun dadin:

Azken urteotan, droga-menpekotasunak daukaten pertsonen senideek eta zenbait elkartetan azpimarratu egin dute 15 eta 20 urte baino iraupen luzeagoko droga-menpekotasuna daukaten pertsonen arazoari behin betiko aurre egiteko beharra. Droga-menpekotasun kronikoa pairatzen duten pertsonak dira, eta zortzi eta are bederatzi aldiz arrakastarik gabeko desintoxikazio tratamenduak hartu dituzte. Metadona hartzeko programean parte hartzen ari dira, baina euren organismoak, eguneroko metadona-dosiaz eta bestelako medikamentuez gain, heroina eta bestelako sustantzien dosiak behar izaten ditu egunero, eta kalean bilatzen dituzte horiek, legez kanpoko merkatuak ezarritako era guztietako baldintzen pean.

Familiek berek azkenean drogak ordaindu behar izaten dituzte, gaixo kronikoen egoera jasanezina denean eta gainezka egiten duten egoerei eutsi ezin dietenean, droga-menpekotasunari ematen zaizkion erantzunen (behar baino lehena-goko senda-agiriak, laguntza-zerbitzurik eza) eraginkortasunik ezaren ondorioz. Halakoa da egoe-

